

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

«20. Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen alda-keta. Aurkeztutako alegazioaren onespena eta behin betiko onespena.

Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hogeita bosteko ekainaren hiruan egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu du:

Lehen. Onartzea, 2025eko otsailaren 21ean (sarrera zk.: 2025-2668), Carlos Quindós Fernández zuzendari orokorrak, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (Visesa) ordezkatzuz, aurkeztutako alegazioa, «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-fabrika» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketako hasierako onespeneri dagokionez, azterketa juridikoan adierazitako arrazoiengatik.

Bigarrena. Behin betiko onespena ematea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-fabrika» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketako testu bateginari; 2025eko apirilaren 15ean, erregistro zk. 2025-5241, aurkeztutako dokumentuekin bat, Carlos Quindós Fernández zuzendari orokorrak, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (Visesa) ordezkatzuz, aurkeztuta eta M.C.L.E. arkitektoak zein N.M.G. eta J.A.P.A., letratu eta tek-niko juridikoak idatzia.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administra-zio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar dai-tezke:

— Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alka-tetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakina-razpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

— Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu orde, edo ai-patutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interes-dunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta bihara-munetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

— Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedu-rari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari eran-tzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekur-tsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Tolosa, 2025eko ekainaren 9a.—Kristina Pelaez Errazkin, zi-negotzi delegatua. (4389)

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Primera modificación del proyecto de reparcelación del subámbito «20.1 Papelera Amarotz» del ámbito «20. Amarotz». Aprobación de la alegación presentada y aprobación definitiva.

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el día tres de junio de dos mil veinticinco, ha adoptado, entre otros, el siguiente acuerdo:

Primero. Estimar la alegación presentada el 21 de febrero de 2025 (n.º entrada 2025-2668) por el director general Carlos Quindós Fernández, en representación de la Sociedad Pública Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (Visesa), en relación a la apro-bación inicial de la primera modificación del proyecto de reparcelación del subámbito «20.1 Papelera Amarotz» del ámbito «20. Amarotz», por los motivos expuestos en el análisis jurídico.

Segundo. Aprobar definitivamente el texto refundido de la primera modificación del proyecto de reparcelación de único/a propietario/a del subámbito «20.1 Papelera Amarotz» del ámbito «20. Amarotz» del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, presentado por el director general Carlos Quindós Fernández, en representación de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (Visesa), y redactado por la arquitecta M.C.L.E. y por la letrada y técnica jurídica N.M.G. y J.A.P.A., con fecha 15 de abril de 2025, n.º re-gistro 2025-5241.

La presente resolución es firme y pone fin a la vía adminis-trativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes re-cursos:

— Con anterioridad al inicio de la vía judicial, la persona inte-resada podrá interponer recurso de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la rece-pción de la presente notificación. Todo ello, conforme a los artícu-los 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedi-miento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— No obstante, en lugar del recurso de reposición, o en el caso de interponerse contra la resolución del recurso, podrá pre-sentar directamente recurso contencioso-administrativo en un plazo de dos meses desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

— Asimismo, si no hubiera resolución expresa, tanto para po-ner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el/la interesado/a podrá interponer en cualquier mo-mento recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá interponerse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Tolosa, a 9 de junio de 2025.—La concejala delegada, Kristina Pelaez Errazkin. (4389)